

BERBAROTARRA 16. zk. 1998ko urtarila

Atzera begira aurrera egiteko

Urtero egiten du Elkartek urtean zehar egindakoaren errepasua eta urte barriko plangintza prestatzeko hausnarketa. Aurten, azterketa sakonagoa egiteko asmoa dugu. 8 urtetako ibilbidea zein izan den ikusi eta datozen lau urtetarako plan estrategikoa prestatuko dugu.

Helburu horrekin bilera nagusi bi egingo ditu Elkartek. Lehena urtarrilaren 17an egin da. Bertan orain arteko ibilbidearen azterketa egin da eta besteak beste, bazkideen parte hartzea, elkartearen eragina herrian, txokoaren erabilera, Berbaro taberna eta gazteak izan dira eztabaidarako gai.

Urtarrilaren 31n berriz, zortzi urtetako hutsegiteak gainditu eta indarberrituta hasteko asmo-

arekin, laupabost urteko plana zehaztuko da. Apurka-apurka euskararen egoera normalizatzea helburu nagusi izanda, zein norabidetan jokatu behar den zehaztuko dugu. Azken batzar honetarako zure ideiak,




iritziak eta ekarpenak ongi etorriak izango dira. Ekarpenik edo kritikarik izan ezker, beraz, bulegotik pasatu edo deitu (6201918) eta hoi berri emaguzu. Hurrengo Berbarotarrean zehaztu-tako plan estrategikoaren berri emango dizugu.

Sukaldaritza begetarianoa

Ardoari buruzko ikastaroak izandako arrakasta ikusita, eta txokoak eskeintzen dizkigun aukerak kontutan hartuta otsailerako ikastaro berri bat prestatu dizuegu; **sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroa.**

Batetik, sukaldaritzan aritzean ondo pasatzen ikastea, gure eguneroko otorduak aberastea, gure otorduetan barazkiak bakarrik janda, elikadura ez dela pobretzen erakustea, sukaldean

irudimenaren lapikoa zabaltea eta guzti hori euskeraz egitea dira gure helburu.



Horretarako Mireia Irazola Gasteizko "El Parral" jantoki barazkizaleko sukaldariaren

laguntza izango dugu. Hiru astetan, astero ordubiko bi egunetan, luzatuko da ikastaroa.

Ikastaro hau atsegina, praktikoa eta aprobetxagarria izatea nahi dugu. 19 ordukoa izango da. Interesa baduzu, otsailaren 3a baino lehen bulegora deitu zure izena emateko. Bazkideentzako matrikula 6.000 pta. izango da eta gainontzekoentzat 7.500 pta. Partehartze mugatua da.

abiltza.bagabiltza.bagabiltza.bagabiltza.baganltza


- "Medikuari euskaraz egin gura deutsot!" izeneko kanpaina arrakastatsua burutu genuen azaroan. Guztira 700 erreklamazio orri jaso ziren eta Landakoko Osasun Zentroan aurkeztu ziren.

- **Ardoari buruzko** ikastaroan 15 lagunek partehartu zuten. Ikastaroari amaiera emateko Gaztelurrutiatarren bodegara egin zuten bidaia. Jende mota ezberdina batu du ikastaro

honek eta lagunarteko harreman berriak sortu dira. Harreman hoi jarraipen moduan, otsailaren 14ean 97 urteko ardo ezberdinen aurkezpena egingo dute, bazkari eta guzti. Ekitaldi honetan parte hartu gura duenak, **otsailaren 11 baino lehen bulegoan eman dezake izena.** Plaza mugatuak izango dira, beraz interesa baduzu, bizkor ibili.

- **Loteriarik** ez zaigu tokatu. Baina

1.272.000 pezeta loteriatan saldu dugu bazkideon ahaleginari esker. Horrela, elkarterako dirutxo bat poltsikoratu dugu. Horregatik, ahalegintxo egin duzuen bazkide guztioi eskerrik asko.



- **Berbaroko agendak** enkarguz eskatzen ditu elkarteak. Aurtengo agendak dagoeneko banatu ditu, beraz, agenda barik geratu zaretenean datorren urtean izango duzue aukera. Dena dela, ez ahaztu, enkarguz izaten dela eta azaroan egin behar dela eskaria.

- **Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusira** autobus bete lagun joan zen Berbarok antolatuta. Bigarren autobusa ere ia bete zen baina azkenean ez genuen lortu eta bakarra joan zen Donostiara. Ahaleginak egin genituen baina. Bestalde, Unai Iturriaga berbarokidea finalean lortutako hirugarren postuagatik zorientzeko tarte hartzen dugu, baita Beñat Gaztelurrutia eta Igor Elortza bazkideak ere, txapelketan egindako ahaleginengatik.

Azokako tabernan 400 bolondres

Euskal Liburu eta Disko azokaren osagarri moduan Azokako Taberna zabaldu zen Cambridge Park diskoteka zaharrean. Horretarako, Durangaldeko 5 elkarte batu ginen: Gerediaga Elkartea, Eraz astekaria, Kurutzia Ikastola, AEK eta Berbaro. Proiektu bat aurrera eramateko batzen

garen lehen aldia izan da eta guztiz arrakastatsua izan da. Komunikabide ezberdinek kritika ona egin diote Azokako Tabernari. Horrez gain, milaka lagun izan zen bertan Taberna zabalik izan zen 5 egunetan. Horrek diru pixka bat poltsikoratzea ekarri digu. Baina guztia, ezinezkoa izango zen, Elkartetako

bolondresen laguntza barik. Guztira 400 bat bolondres izan ziren egin beharreko lan guztiak egiten. Berbaro arduradun izan zen egunean, zapatuan, 130 lagun ibili ginen. Azokako Tabernak izandako arrakasta lortzen lagundu duzuen guztioi eskerrik asko.

kultur ekitaldien agenda

Urtarrilak 17 eta 31

- Berbaro Elkarteko 1998. urteko plangintza prestatzeko batzarrak. Goizez Pinondo Etxean.
Zertan lagundu?
Ideia, kritika eta aportazioekin batzarretara etorri (deitu bulegora).

Urtarrilak 23 eta 30

- Santa Agedako entsaiuak Kurutzia Ikastola antolatuta. 7,30etan Kurutzia Ikastola.

Otsailak 4 Santa Ageda kantatzera joango gara ikastolakoekin batera.

Urtarrilak 29

- Hitzaldia: "A-8 peajea". Pinondo Etxean, 19.30etan.
Zertan lagundu?
18.30ak aldera hitzaldirako gela prestatuz. 2 lagun.

Otsailak 14

- Ardo berrien aurkezpena. (Ikusi bagabiltza atala)

Plaza mugatuak izango dira, otsailaren 11ra orduko deitu.

Otsailak 26

- Musika: Tabernan. Piztiak rock taldea. 21.00etan.
Zertan lagundu?
18.00ak aldera Taberna kontzerturako prestatu eta musikariei afaria prestatu.

Martxoak 27

- Bertso Afaria Non egingo den eta nortzuk etorriko diren azalduko da Erazen.

Zertan lagundu?

Bertso afaria antolatzen (kartelak, txartelak,...). 2 lagun. Afari egunean, jantokia antondu, afarirako erosketak egin eta afaria prestatu eta zerbitu. 5 bat lagun.

Otsailean

- Ikastaroa: Sukaldaritza begetarianoari buruzkoa.

Izena emateko epea otsailaren 3a.

Zertan lagundu?

Ikastaroa antolatzen eta bertako arduradun izaten Berbaroko arduradun batekin. 2 lagunentzako lana eta hilabete horretan noizbehinkako lana.

-1998ko Ipuin labur, bertso paper eta komiki lehiaketa berriaren oinarriak atera ditugu



jadanik. Informazioa nahi duenak Berbarora deitzea dauka, badakizu. Edozelan ere, lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 20a izango da.

IZANDAKOAK

Mikel Urdangarín zornotzarrak "Haitzetan" bere lehen diskoa aurkeztu zuen Tabernan. Taberna jendez beterik izan genuen, beharbada, kantari horren lehenengo aurkezpena izan zelako edo.



Boletin honetan Guezan ba eta Bagabizekook zertan gabilzan azaltzeko lekutxo eskaini digu berriz ere Berbarok.

Urte hasieran proiektuak prestatzen hasiko gara eta momentu aproposa deritzogu lagun berriak taldean sartzeko. Zuetako edozeinek gugana hurbildu nahi izan ezker, edo parte hartu dezakeen lagunen bat ezagutzen baduzue ere esaiozue, bariku arratsaldetan Berbaroren lokalean edo taberna gainean dugun ganbaran agertzea baino ez daukazu.

Gazteei zuzendutako hainbat ekimen burutuko ditugu aurten ere; sentsibilizazio ekintzak, kultur ekitaldiak, irteerak, afariak eta abar. Zuk ideiarik baduzu etorri eta

kontaiguzu, martxan jartzeko ahaleginak egingo ditugu eta.

Ondo pasatzearekin batera gure ingurua, gazte ingurua, kontzientziaztea da gure helburua.

Animazio taldea

Animazio talde bat dugu martxan, jakingo duzue, malabarak, hankapaluak, txalaparta, umeendako ekitaldiak eta egiten dituzte. Gustokoa duzula horrelakoetan aritzea? Bueno ba, deitu, zein arlotan parte hartu nahi duzun esatearekin ginda dago.

Bagabiz

Badakizue, Bagabiz taldeak asteburuetako ekintzak egiten dituela gehien bat. Oraingoan ikastaro bi antolatu ditu: bata antzerkiari buruzkoa (hasita dago) eta bestea bertsolaritzari buruzkoa. Bigarren ikastaro horretan parte hartu nahi duenak otsailerako izena eman beharko du.

Ikasturte honetarako egitaraua

OLGETAN

Olgetan aisialdi taldeak hirugarren urtea beteko duen honetan 5, 6 eta DBHko 1. eta 2. mailakoentzako ekintzak antolatuko ditugu. Jarraian, ikasturte honetarako antolatu ditugun ekitaldien berri duzue, edozelan ere, kontuan izan fetxak aldatu daitezkeela arazorik dagoenetan.

Urtarrilaren 25ean : Izotzetara joango gara

Otsailaren 1ean: Elur-
rretara joango gara.

Otsailaren 15ean:

Txitxiburduntzi

Otsailak 22/23:



Asteburuko irteera

Martxoaren 14an:

Kamiseta tailerra

Apirilaren 5ean:

Trenbide zaharra
ezagutzeko irteera



Maiatzaren 9a: Eskolen arteko play back lehiaketa

Gogoratu Berbaroko bazkideen seme-alabei Olgetaneko bazkidetza ez diegula kobratzen eta argazki bi ekarrita nahikoa duzuela. Besteontzako, haurren bat bazkide egin nahi baduzue Euskadiko Kutzaren 014002669 kontuan 2.000pta sartu behar dituzue.